

## «Haur hauei euskaraz aritzeko espazioak eskaini behar zaizkie»

**PATRI ARBURUA ETXEBERRIA** BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEKO TEKNIKARIA

Kurtso hasieran Euskara Mankomunitateak eta Euskaltzeleen Topaguneak martxan jarri zuten 'Solasean' programa Bortzirietan. Orain, egitasmoaren bilakaerari buruz aritu gara Arburuarekin

### R. OSKARIZ

Aisialdiko programa bat da *Solasean* egitasmoa, «euskaraz ikasteko zailtasunak dituzten haurrei hizkuntza indartzeko aukera ematen diena». Aurtengo ikasturte hasieran martxan paratu dute bigarrenez Beran eta Lesakan eta oraingoz «dena aurreikusi bezala» doala azaldu digu Patri Arburuak, Bortzirietako Euskara Mankomunitateko teknikariak.

#### Zein da programaren helburua?

Hizkuntzaren errefortzua ikuspegi ludikotik eta ahozkotasunetik lantzea, euskara haien komunikazio tresna bihurtu dadin eta komunikatzeko trebetasuna lortu dezaten. Herriko bizitzan euskaraz murgiltzeko baliabideak ere eskaini nahi zaizkie.

#### Zergatik sortu zenuten?

Zorionez gure eskualdeko familien gehiengoak euskarazko hezkuntza sistema (D eredua) aukeratzen du beren seme-alabentzat. Halere, familia horietan aniztasuna gero eta handiagoa da: gero eta gehiago dira euskaraz ez dakiten gurasoak, kanpotiketorritakoak, etab. Testuinguru horren ondorioz, azken urteotan ikastetxeetan ikusten hasi dira zenbait ikasle, euskaraz eskolatuak egonda ere, zailtasunak dituztela euskara erabiltzeko, ikasteko eta baita ulertzeko ere. Zenbait kasutan horrek ondorioak ditu haien garapen akademikoan, eta kezka horretatik abiatuta sortu genuen.



Mankomunitateak sortu du 'Solasean' programa eta Topaguneak kudeatzen du.

#### Joan den urtean egin zenuten egitasmoa lehenengoz. Nolako izan zen emaitza?

*Solasean* pandemia betean abiatu zen, hain zuzen ere ikusi genuelako ikasle horiek eskolara joan gabe eman zuten denbora horrek lehendik zekarten arazoa haunditzea ekarri zuela. Proba gisa abiatu genuen, eta hasieratik erantzun ona izan zuen: 2020ko urriaren 17 ikaslerekin abiatu ginen, eta urtariletik aitzinera baziren 27 izena emanak. Ikasturtearen akabailan balorazio inkesta bete zuten parte hartu zuten neska-mutikoei, gurasoei eta ikastetxeetako tutoreei. Oro har, balorazioak aski positiboak izan ziren, eta agerian gelditu zen programa honen beharra.

#### Eta nolako izaten ari da aurten-go kurtsoa?

Ikasturtea 26 neska-mutikorekin hasi dugu; 15 Beran eta 11 Lesakan. Bi begirale ditugu aurten ere, Haizea Etxeberría eta Ganix Arruti, eta biak egoten dira taldearekin, asteartean Lesakan eta ortzegunetan Beran. Egitasmoa urriaren erdi aldera abiatu zen eta oraingoz dena aurreikusi bezala doa.

#### Haurren bilakaera positiboa da?

Bai, joan den urteko balorazioek hori erakusten dute. Halere, ez dugu pentsatu behar hori programari esker bakarrik gertatu denik, ikastetxean eta eskolaz kanpoko jardueretan ere euskaraz aritzen baitira. Programak bere mugak ditu, haur bakoitzak astean bi ordu

bakarrik ematen dituelako bertan. Hortaz, euskalduntze prozesuan lagungarri izanen zaien bertze baliabide bat da.

Garapen akademikoan, programak duen eragina neurtzea zaila da. Ulertu behar duguna da haur hauei euskaraz aritzeko aukerak eta espazioak eskaini behar zaizkiela; zenbat eta gehiago, hobe.

Bertan integratzeari begira, programaren helburuetako bat da haurrekin herriko plazetara, parkeetara, kiroldegietara, liburutegietara... eta bertzelako espazio publikoetara joatea, ezagutu ditzaten eta euskaraz sozializa daitezten. Iazko ikasturtean zaila izan zen, osasun neurri zorrotzak bete behar zirelako, baina aurten gehiago heldu nahi genioke horri.

#### Haurren etxeko giroa ere garrantzitsua izanen da prozesuan...

Balorazio inkestan ikusi genuen familiek gustura hartu zutela programa, eta seme-alabak pozik joaten ziren saioretara, bertan ongi pasatzen baitzuten. Garrantzitsua da euskararekin eskolaz kanpo horrelako esperientzia positiboak izatea.

Etxeko giroari dagokionez, haur hauen etxeetan euskarak ez du presentziarik edo hagitz txikia izaten du. Gurasoei transmititu nahi diegun mezua da haien seme-alabekin euskaraz solastatzeko aukerarik ez badute ere, gauza aunitz egiten ahal dituztela euskarak etxean ahalik eta presentzia handiena izan dezan. Adibidez, euskara eguneroko errutinetan erabiltzea agurretan edo esaldi laburretan, musika, telebista eta pantailaren aitzinean euskarari presentzia ematea eta euskararekiko jarrera positiboa erakustea.

#### Zerbait gehitu nahi al duzu?

Orain arte errandakoarekin, parte hartzen dutenak atzeritik datozten haurrak edota atzerriko gurasoak dituzten haurrak direla pentsatu daiteke. Hau ez da beti horrela, programan badira euskal herritarren seme-alabak ere.